

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2020

Joan zen abenduaren 1ean Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen Euskal Herriko Unibertsitatearen eta bere bi fundazioen (Medikuntza eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa eta EHUren Uda Ikastaroak) ekonomia eta finantza jardueraren 2020ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena.

Urteko kontuei dagokienez, Epaitegiak **aldeko iritzia** eman du, baina uste da egoera-balantzearen epe laburreko zorrak osatzen dituzten partida eta programa batzuk gastu orokorretarako geldikintzat hartu beharko lirakeela.

Finantza egoerari dagokionez, emaitza korronteak behera egin du, sarrera arruntak murriztu egin baitira helburudun transferentziek behera egin dutelako eta gastu korronteek bere horretan eutsi diotelako. Epaitegiak ondorioztatu du inbertsioak etorkizunean egin ahal izatea finantzaketa eskuratzeko gaitasunaren baitakoa dela, bai kapitalezko dirulaguntza bidez, bai berriz ere zorpetze bidea baliatuta.

Ministroen Kontseiluak, 2020ko urriaren 6ko Erabakiaren bidez, 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako arau fiskalak kentzea onartu zuen, munduko pandemiaren egoerak eraginda. Neurri horrek bertan behera uzten ditu 2020ko irailaren 30ean adostutako helburuak, krisiaren eraginaren ondorioz zaharkituta geratu baitira.

Txostenak ondorioztatu du Unibertsitateak zuzentasunez bete duela 2020an ekonomia eta finantzaren jardura arautzen duen lege araudia; alabaina, unean uneko zenbait ez-betetze azaleratu dira bai **Langileen gastuen** alorrean (irakasleei arautegian aurreikusi gabeko kontzeptuengatik 502.659 euroren ordainsariak ordaintzea eta aldi baterako lan kontratua duten irakasle eta ikerlarientzat Unibertsitateen Lege Organikoak ezarritako irakasleen plantillaren % 40ko muga gainditzea), bai **Administrazioko kontratazioan** ere (kontratu bidezko estaldurarik gabe, 754.831 euroren gastuak aitortzea horniduretan eta zerbitzuetan).